

TAURUS. MITOTIK ERRITUALERA

BBK aretoa, 10/06/07–10/09/05

BBKren eta Iberdrolaren babesarekin eta Euskaltelen lankidetzarekin

Historiaurretik hasi eta erromatarren mundura heldu arte, zezenaren figurak toki nabarmena izan du Mediterraneoko zibilizazioetako kulturaren eta artearen, eta, ondorioz, zezenaren irudia islatuta geratu da mito, zeremonia erritual, joko eta jaietan. Errenazimentuak ikonografia hori jaso zuen, batez ere Minotauroaren eta Europaren Bahiketaren mitoei buruzko gaiak ukituz. XVI. mendetik aurrera, arteak ere tauromakiarekiko interesa agertu zuen, eta, orduetik aurrera, XVIII, XIX eta XX. mendeetako sortzailerik handienetako batzuek zezen-jolas modernoari buruzko gaiak landu izan dituzte, bizitzaren indarra antzina egiten zen bezala gurtuz eta heriotzari zuzenean so eginez.

Erakusketa honen jatorrian, Cocherito de Bilbao zezenketa klubaren mendeurrena dago. Hain zuzen ere, erakusketak erakutsi nahi du nolako konplexutasunez hurbildu den artea zezenaren figurara, antzinako zibilizazioetan zezenak zeukan garrantzi erlijiosotik abiatuta. Izan ere, Antzinaroko zibilizazio mediterraneoetan, zezenaren figurak mito eta agerpen zoolatriko ugari sortu zituen, bai eta zeremonia-jokoak eta sakrifizioak ere. Geroztik eta Erdi Arora arte, zezen-ehizek, zirku erromatarretako partaidetzek eta emankortasuneko eztei-errituek nolabaiteko harremana garatu zuten gizakiarekiko, eta agerpen horiek, azkenik, izaera ludikoa hartu zuten, gaur egun ezagutzen dugun zezenketa kodetura heldu arte.

Bilboko Arte Eder Museoak produzitutako *Taurus. Mitotik erritualera* erakusketak zezenaren figurak Artearen Historian izan duen garrantzi kulturala erakutsi eta aztertuko duen lehenengo erakusketa handia izan nahi du. Horretarako, 200 artelan baino gehiago bildu ditu –margoak, eskulturak, paperean egindako lanak eta arte aplikatuak–; esate baterako, pieza arkeologiko baliotsuak (K.a. 1200. urtearen inguruan datatutako jatorri irandarreko terrakota bat, Londresko British Museumek lagatako K.a. VI eta V. mendeetako bi anfora greziar, edo Napoliko Museo Arkeologikoko K.a. I. mendeko fresko ponpeiar bat), pinturak (Goya, Zuloaga, Gutiérrez Solana, Picasso, Miró, Equipo Crónica edo Barcelórenak), eta Carnicero, Goya eta Picassok tauromakiari buruz egindako estanpen sorta osoa, beste gauza askoren artean. Lan horiek guztiak nazioarteko berrogeita hamar museo eta bilduma inguruk lagatakoak dira.

Erakusketa bi atal nagusitan dago bananduta: “Zezenaren mitoa eta mitoak” eta “Jaiaren errituala”; azken hori, aldi berean, tauromakiaren garapenari buruzko sei ataletan dago bereizita: jatorriak, lekuak, pertsonaiak, zezenketa, tragedia eta loria, eta jaiaren osteko irudiak.

Erakusketarekin batera, katalogoa egin da, Carlos Moya, Pedro Romero de Solís, José María Blázquez, William Jeffett, Virginia Albarrán, Jesús Urrea, Álvaro Martínez-Novillo, Alfonso Carlos Saiz Valdivielso, Brigitte Leal eta Araceli Guillaume-Alonsoren testuekin.

I.- ZEZENAREN MITOA ETA MITOAK

Historiaurretik, arteak arreta berezia jarri du zezenaren figurarengan. Erljio edo jai giroko erritualak tauromakiaren bitartez heldu dira gaur egunera. Mito primitiboetatik hasi eta obsesio surrealistaraino, zezenak boterea, gizotasuna, ordenaren mehatxua eta indar sortzailea iradokitzen ditu. Jatorri aurreheleniarreko zenbait mito greziarren figura nagusi gisa agertzen da: Kretako zezena, Minotauroa, Europaren bahiketa eta Dirzeren oinazearen kasuetan, adibidez. Bertan, zezena indar suntsitzailearen sinbolo gisa agertzen da, eta, aldi berean, naturaren ordena iraultzeko eta munstro bat sorrarazteko gai den izaki gisa. Kontakizun horietan, heroiak zezena hil behar du, oreka morala berreskuratuko bada. Teseok labirintoan egin zuen ibilbidea eta Europak eta Herkulesek zezenaren gainean egin zituzten itsas bidaiak iniazio-erritualak dira, eta, horien bitartez, senaren pasioa menperatu nahi da, Erosen eta Tanatosen arteko gatazkaren barruan.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Pieza arkeologikoak: *Porcunako zezena*, K.a. 600-501. urteak, Jaéngo Museokoa; eta Bartzelonako Museu d'Arqueologia de Catalunya museoko piezak, besteak beste. K.a. 540. urteko anfora greziarra, Londresko British Museumekoak; Picassoren *Suite Vollard* serieko akuaforteak, Museo Fundación Juan March museokoak (Palma); Martin de Vosen *Europaren bahiketa*, Bilboko Arte Eder Museokoa; eta Zurbaránen *Herkules, Kretako zezenaren kontra borrokan*, Pradoko Museo Nazionalekoa. *Dirzeren zigorra*, K.a. I. mendeko horma-pintura ponpeiarra, Napoliko Museo Arkeologiko Nazionalekoa. Pablo Picassoren *Zezenaren burua* muntaia, Joan Miróren *Zezenaren burua* brontzea (Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionala, Madril) eta Alberto Sánchezen bi eskultura (Santander bilduma eta Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionala, Madril).

II.- JAIAREN ERRITUALA

1.- JATORRIAK

Errituekin batera, zezenaren eta gizakiaren arteko borrokan oinarritutako ikuskizunak sortu ziren Kretan, Grezian eta Asia Txikian, eta, bertan, gizakiaren trebetasuna eta indarra jartzen ziren agerian. Hori horrela, taurokatapsia greziarrean, zaldizko batzuek zezen talde bat nekatzen zuten, gero adarretatik helduta etzanarazteko; eta zirku erromatarretan, hainbat mosaikotan dago jasota zezenaren presentziaren lekukotza. Baina zezenketa Iberiar Penintsulan sortu zen: garai aurre-erromatarrean, zezen basatiak ehizatzen ziren; arabiarrek zezen-jolasak egiten zituzten; eta Erdi Aroan eta Errenazimentuan, zezen-lasterketak egiten ziren. "Eztei-zezenaren" ohitura Alfontso X.a Jakitunaren *Ama Birjinaren kantigak* lanean (XIII. mendearen erdialdea) dago dokumentatuta, eta, horien arabera, eztei-erritu bat egiten zen, odolaren ongarritasun magikoan oinarrituta. XVI eta XVII. mendeetako irudiek zaldunen zezenketaren lekukotza eskaintzen dute; hain zuzen ere, zezenketa mota hori aristokraziako kideek praktikatzeko zuten. Apurka-apurka, izaera erritual primitiboaren ordeztu, izaera ludikoa agertzen joan zen, eta, azkenik, oinarri kanoniko zorrotzak dituen tauromakia espainiarra finkatu zen.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Ama Birjinaren kantigak lanaren kodizearen faksimilea, Madrilgo Liburutegi Nazionalekoa; Philips Galleraren grabatua, XVI. mendekoa, British Museumekoak; eta XVII. mendeko grabatu alemaniar anonimoa, Madrilgo Zezenketa Museokoa.

2.- LEKUAK

Hasieran, zezenketak herri eta hirietako leku zabaletan egiten ziren, batez ere plaza publikoetan edo inguruko eremuetan, oinarri-oinarrizko hesiak eta harmailak jarriz. Gero, egurrezko plaza desmuntagarriak egiten hasi ziren, lehenengo lau angelukoak eta gero biribilak; horrela, XVIII. mendeko lehen erdian, gaur egun ezagutzen ditugun zezen-plazak egiten hasi ziren.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Thomas Moronyren ikuspegi topografikoak (Euskal Museoa-Museo Vasco, Bilbao) eta XVII. mende amaierako bi lan anonimo, Madrilgo Historia Museokoak; Eugenio Lucas Velázquez eta Zuloaga (Carmen Thyssen-Bornemisza bilduma), Regoyos (Bilboko Arte Eder Museoa) eta Gutiérrez Solanaren (Pedro Masaveu bilduma, Asturiasko Arte Eder Museoa, Oviedo; eta Francisco Godia Fundazioa, Bartzelona) koadroak; Equipo Crónica taldearen *Zezenetoki iberiarra* eta Miquel Barcelóren *Zezenetokiko irteera* mihiseak, biak ere bilduma partikularretakoak.

3.- PERTSONAIK

Zezenketaren erritual konplexuak zenbait pertsonaiaren presentzia eta jarduna eskatzen du: zezena, zezen-zaina, toreatzailea edo zezen-hiltzailea (batzuetan, emakume toreatzailea), koadrila, pikadorea eta zaldia. Horiek dira garrantzitsuenak.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Zezena: Iturrino (Zorrilla Lequerica bilduma, Bilbao) eta Benjamín Palencia (Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionale, Madril), Alberto Sánchez (Bilboko Arte Eder Museoa) eta zezena erakusten duten Picassoren litografien 11 egoerak (Fundación Pablo Ruiz Picasso-Museo Casa Natal, Málaga). Zezen-zaina: Iturrino (Bilboko Arte Eder Museoa) eta Zuloagaren (bilduma partikularra) mihiseak. Toretzailea: Zamacois (Bilboko Arte Eder Museoa), Zacharie Astruc (Petit Palais, Musée des Beaux-Arts de la Ville de Paris), Juan Gris (marraskia, Musée d'Art Moderne, Céret), Manolo Hugué (eskultura, Museu Nacional d'Art de Catalunya, Bartzelona), Jacques Lipchitz (eskultura, Minneapolis Institute of Art), Zuloaga (Musée d'Ixelles, Brusela), Picasso (Ludwig Múzeum, Budapest) eta Gargalloren eskultura bat (bilduma partikularra). Emakume toreatzailea: Édouard Manet (estampa, Bibliothèque Nationale de France) eta José Gutiérrez Solana (Musée National d'Art Moderne, Centre Georges Pompidou, Paris). Koadrila: Daniel Vázquez Díaz (Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionale, Madril). Pikadorea eta Zaldia: Boteroren mihiseak (artistaren bilduma).

4.- ZEZENKETA

Gaur egungo zezenketa XVIII. mendeko bigarren erdialdeko lehen formulazioen bilakaeraren ondorioa da. Izan ziren bi korronteetatik (Euskal Herrikoa –jauzi, errekorre eta banderillaz osatutakoa– eta Andaluziakoa –kaparen erabileran oinarritutakoa–), bigarrena nagusitu zen, banderillak ere gehituta.

Gaur egun, zezenketari hasiera emateko, aurkezpen-paseoa egiten da, eta zezenketak hiru atal edo ekitaldi izaten ditu: pikaldia, banderillak eta muleta –azken hori estokadarekin amaitzen da–; eta lantze nagusi bi daude: kaparekin egiten dena eta muletarekin egiten dena. Joselitok eta Belmontek eman zioten behin betiko itxura zezenketa garaikideari, XX. mendearen bigarren hamarkadan.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Oso-osorik aurkezten dira Antonio Carnicero (1787-90, Historia Museoa, Madril), Francisco de Goya (1816, Bilboko Arte Eder Museoa) eta Pablo Picassoren (1959, Museu Juan March Fundazioa, Palma) *tauromakiak*. Honako hauen olioak: Goya (bilduma partikularra), Vázquez Díaz (Mapfre Fundazioa, Madril), Francis Picabia (Musée du Petit Palais, Geneva), Mariano Fortuny (Pradoko Museo Nazionale, Madril), Ramón Casas (Museu de Montserrat, Bartzelona), André Masson (bilduma partikularra), eta Francis Baconen litografia (Bilboko Arte Eder Museoa). Gainera, Goyaren *Bordeleko zezenak* seriea (Madrilgo Liburutegi Nazionaleko 4 estampa eta Bordeleko Arte Eder Museoko ale bakar 1) eta lantze-eszenak irudikatzen dituzten Picassoren 2 zeramika, biak ere Céreteko Musée d'Art Moderne museokoak.

5.- TRAGEDIA ETA LORIA

Zezenketa odoltsuen eszena dramatikoak maiz agertzen dira XIX eta XX. mendeetako artean, Goyatik hasi eta Picasso edo Massoneraino. Baina, batez ere, artista batzuek eszena konkretu batean aurkitu dituzte indar espresiboz betetako irudiak: hain zuzen ere, zezenak zaldia erasotzen duen unean. Halaxe gertatzen da, modu paradigmaticoan, Picassoren *Guernica* lanean. Beste alde batetik, plazako loriak maila heroikoa ematen dio toreatzaileari, eta, horrela, herriaren ikono bihurtzen da.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Édouard Manet (akuaforte, Bibliothèque Nationale de France), Pablo Picasso (Thyssen-Bornemisza Museoa, Madril); Luis Fernández (Bilboko Arte Eder Museoa), André Masson (bilduma partikularra), Mariano Fortuny (The National Gallery, Londres), Anglada-Camarasa ("la Caixa" Fundazioa), Julio Romero de Torres (Kordobako Arte Eder Museoa) eta Eduardo Arroyo (artistaren bilduma).

6.- JAIAREN OSTEAN

Zezen-hiltzailearen loriarekin kontraste eginez, tragedia agertzen da; adibidez, toreatzailea plazan hiltzen denean, zezenaren heriotzaren patu saihestezinaren kasuan, hiltzeko lantzea duten zezenketetan, edo zaldien eszenetan.

IKUSGAI JARRITAKO LANEN AUKERAKETA

Zuloaga (The Hispanic Society, New York), Daniel Vázquez Díaz (Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionala, Madril), Darío de Regoyos (Cajastur bilduma, Asturiasko Arte Eder Museoan gordailuan utzia, Oviedo) eta Luis Fernández (Bilboko Arte Eder Museoa).